



IXA RODRIGUEZ **Boxeorako grina** **kolpez kolpe**

GABONETAKO DEMASEKO ZOZKETA

Zozketan parte hartzeko Bizikaleko komertzioetan salgai egongo diren boletoak erosi beharko dira.
Boleto bakoitzak 2,5 € balio ditu eta barraketarako 4 tiket ditu opari.



ZALDIKO-MALDIKOA ETA OHE ELASTIKOAK

egunak

Abenduaren 20tik 31ra

25ean itxita

ordutegia

11:00 - 14:00 eta 17:30 - 20:30



IZAGUIRRE Igeltseritza

mota guztietako igeltseritza

943 75 11 62 • 649 867 289

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOMAINIKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NOLURRA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behe, Sorluze

TALLERES
M.A.H., S.L.

DEKOLETAJEKO PIEZEN
FABRIKAZIOA

Tel. 943 75 30 22 • FAX-a. 943 75 30 88
Mendiola ind. 14, 4. pab.
Sorluze (Gipuzkoa)

PASCUAL CHURRUCA, S.A.
Torlojugintza

Errekalde, 21 Tel. 943 75 00 06

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

SOMABE

↳ Makina bereziak
↳ Linea automatikoak
↳ Estankotasunaren kontrola

Sorluze Makina Bereziak S.L.L.
Mendiola Industrialdia, 14-5 • 20590 SORLUZE (Gipuzkoa) • Tel. 943 75 18 91 / Fax 943 75 24 58 • www.somabe.com

OSUMA
basolanak

Sutarako egurra etxera

Osuma-gain baserria
S. Andres auzoa
Tel. 943 58 40 41
Mug. 630 143 767

MGS Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORLUZE
Tel. 943 75 14 57 • 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es

Zozketako irabazlea: Iñaki Gabilondo.
Saria: Smarbox esperientzia.

Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!

Kalebarren 22. behea,
Sorluze, Tel. 943 75 17 89

BOLINTXO
OKINDEGIA

943 75 25 43
SANTA ANA KALER 4
SORLUZE

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 esk.
Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Sorluze
GIPUZKOA

Sorluze
Kooperatiba
Elkartea

1910etik

943 75 13 45

Lapurrik lapurrenak



Egoitz Unamuno Haritz Arizaga

Kaixo Haritz,
Ataunen eta Zegaman, egunez ikusitakoa gaez eraman, jiñok esaeriak umore puntu batekin. Etxuat uste norberari zeozer harrapatzen dotsenian gehixena sortzen dan sentimendua umoria danik. Neuri be, juan zan astian metalezko bandejak harrapau jostezenian etxostan grazia haundirik egin. Handik pare bat egunera, denda baten gai horren inguruan berbetan hasi eta sekulako zerrenda egin genduanian:

“Patxada eta zentzuna
lapurtzen doskuenak dittuk
lapurrik lapurrenak”

erosketetako gurditxua, mugikorra, Mendatanekua, bizikleta, plazako txabolako atiak... bildurto nintzuan horrenbeste lapurreta batera entzunda.

Momentuan sortu jatan arduriakin etorri jatan lehenengo sentimendua *bildurrana* izan zuan. Zorionez ez nok ez alkatia eta ez udaltzainburua, eta txarren txarrenera egin neikiana egin najuan, geizki esaka jardun haregaittik eta honegaittik. Gaixari buruan buelta batzuk emoteko astixa euki juat gero, eta astebeteren ostian, batakin eta bestiakin gaixa komentatu eta gero, pixkat diferente ikusten juat kontua.

Lapurreta delitu handiagoa da ebasketa baino, ipintzen jok wikipedian *lapurreta* berbiari dagokixon sarreran. Dudarik barik, bandeja batzuk harrapatzia eta Mendatan sartzia ez dok gauza berdina; eta biharragaittik, gaixotasunagaittik edo anbiziñuagaittik harrapatzia bez. Dana dala, dauzkagun gauzarik preziatuenak – patxada, zentzuna, bestiekiko konfidantza, herri giro sanua... - lapurtzen doskuezenak dittuk lapurrik lapurrenak. Hik sekula ebatsi edo lapurtu dok ezer?

Iepa Egoitz!!

Pentzau erain dostak, ia zeozer ebatsi edo lapurtu doten sekula... eta ez nok gogoratzen ba. Noiz edo noiz hartuko najuan zeozer, seguru. Baña intentziño txarrez sekula bez. Konturatu barik igual zeozer neria zalakuan hartu edo izan leike. Hori edozeñeri gerta leikixok. Eta noiz edo noiz neri be zeozer ostuko josten, seguru, baina akordau be ez nok egitten.

“Egoeria konpondu bihar
izateko abixu moduan hartu
biharko genduke.”

Zalantzan naok lapurreten kontu honetan asmo onak eta txarrek bereizterik dauan edo ez. Ba al daok norberana eztan zeozer harrapatzerik asmo onakin? Ez nok ni holako kontuetan sartuko, ondo dauan edo ez, ze gauza asko daoizik hori ikusteko. Zenbaterainoko biharra dagan, zenbat kalte egitten dotsan lapurretiak benetako jabiarri... Dana dala, krisi garai honetan dana daok hankaz gora. Lehenao be gertatzen zittuazen lapurretak eta halakuak, baina azkenengo egunotan ugarittu egin dirala pentsatzen juat. Horrek pentsarazten jostak biharra izango dala azkenaldiko lapurreten arrazoa. Eztokiñundikiñora justifikaziñua, baña egoeria konpondu bihar izateko abixu moduan hartu biharko genduke.

Arrazoa daukak, Egoitz, ados najaok lapurrik lapurrenak eurtan ezebe (eta dana) balio daben horrek osten dittuztenak dirala esatiakin. Askotan, baña, konturatu barik, gu geu izaten gaittuk patxada, zentzuna, bestiekiko konfidantza, eta abarrak galtzera eruaten dittugunak, lapur biharrik barik. Dana dala, badaozik horrek lapurtzen ibiltzen dianak, lotsagabe galantak, eta dudan naok horren lapurretak sekula zigorrak eukiko daben ala ez. Lastima.

Gutunak

Eneko Beretxinaga **Ikerri erantzuna**

Iker, gutun hau modu pertsonalian zuri bidaltzeko asmua neukan, baina zure idatzizak sare sozialetan euki daben zabalpena eta horren harira zenbait herritarren erreakziñua ikusitta, publiko egitia erabaki dot.

Gaztainerretan eduki genduan liskarraz, garbi dago nork bere ikuspegixa daukala, ez naiz bertasio detailetan sartuko.

Gaztetxeko erabakixak asanbladan hartzen dira. Asanblada horrek ez dau inori gaztetxeko sarrera debekatzerik erabaki (zenbait jarrera dituzten pertsonak kanporatzea bai, hau kasua ez dan arren) eta gaztetxetik urtetzeko eskatu notsun momentuan ez neban asanbladan izenian egin, modu pertsonalian baino. Egiteko modu korrektuaguak badare, akaso ez zan momentu aproposa, baina zuk ordezkatzun dozun alderdikaz urte luzez gaztetxe mugimenduan kontra diharduanez (herrixan bertan euki izan ditugu liskarrak), deseroso sentittu ginan zu bertan ikusitta.

Gaur arte ez dozu sekula bestelakorik adierazi eta, modu horretan, mugimendu honen kontrako erabakixak onartzen eta konpartitzen dituzula transmititzen dozu. Beharbada oker nago eta bestelakua da gaztetxiakiko daukazun ikuspegixa. Hola baldin bada, adieraztera gonbidatzen zaitut.

Amaitzeko, esan, ez dodala eztabaida publikuan jarraituko. Ezer gehitu edo argitu nahi badozu, kasuan kasu, badakizu nora jo.

BIZIKALE **Ibilbide berriaren hasiera**
Soraluzeko merkatarien elkarte

Orain urtebete, ezkortasunak jota eta noraezean elkartea bertan behera lagatzea buruan generabilkiela, ez genuen asko pentsatuko urtebete beranduago orain gauden aldarreakin egongo ginenik. Azaroaren 16an kalean bizi izan genuena izan da azkenengo urtebete hontan egin dugun lanaren ginda.

Lerro hauen bitartez eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu soraluzetar guztioi, gure ahaleginari eman diozuen erantzun ikaragarriagatik. Bereziki eskertu nahi dugu udalaren laguntza, eta modu berezian Unai Larreategi eta Ainara Mugaren lana; zuen gogo-indarrarekin geure buruarengan sinesten eta jarraitu beharreko bidea ikusarazten lagundu diguzuelako.

Azokarena lehen pausoa besterik ez da izan, baina nahita ere ez genuke hasiera hoberik imajinatuko. Gure bidea luzea eta gogorra izango da, baina ez daukagu dudarik elkartuta-merkatariorik, udala eta herritarrak-ederragoa izango dela, hori gure. Eman bizia, erosi herrian!

Bittartetik


**Zein urrun dago Kamerun**

Pascal-ek bere pentsamenduetako batean esaten zuen bezala "gure bizitzako edozein momentuan egiten dugun guztia, edota egiten ez duguna baita, motibo bategatik egiten dugu: zoriotsuak izateko. Eta -gehitzen zuen berak- "Eta esaten nagoena une honetan bere buruaz beste egiten ari denarentzat ere balio du".

Krisi garaietan zoriontasunaz aritzea lelokeria dela esango du norbaitek, baina zerbait badago benetan unibertsala, guztiok elkartzen gaituena, zoriotsuak izateko nahia, asmoa, helburua litzateke. Nire ustez, gizakia betidanik egon da krisian; momentu batzuetan beste batzuetan baino hobetuxego, baina azken finean etengabeko krisian garatu dira gizarteak.

Egin berri diren azterketak diotenez; zoriontasuna baldintzatzen duten faktoreak %50ean herentziaz jasotakoa, %10 inguruaren esku eta %40 bakoitzaren jarreraren datza. Lehenengo biek ez dago zeregin handirik egiteko, baina hirugarrenean dugu jokoa; gure jarrera lantzean. Jarrera lantzeari adimen emozionala garatzea diogu. Zoritxarrez ez da oso landua izan eskoletan adimen mota hau, operatiboak izan du betidanik lehenetasuna; ez gaituzte zoriotsuak izateko prestatu, hori denean guztion eta bakoitzaren nahi nagusia.

Filosofo presokratikoak zioten bezala, bizitzan eraginkorra ez da gertatzen dena, gertatzen denarekin egiten duguna baino. Eta amaitzeko, esaera afrikarra datorkit gogora "Barruan etsairik ez dagoenean, kanpoko etsaiek ezin gaituzte kaltetu".

Ipuina opari

Abenduak 24, martitzena, Mari Dominge eta Olentzerok ipuinaren ale bana oparituko diote ume bakoitzari.

Ipuinaren kontaketa bideoa ikusgai: Plaentxia.com-en.

ARANTZA MATA**Plaentxi Herri Ikastetxeko zuzendaria****“Ikastetxearena ez ezik, hezkuntza, komunitate osoaren eginkizuna da”**

Arantza Mata (Eibar, 1974) 2007tik dihardu Plaentzia Herri Ikastetxean lanean. Azken hiru urteetan ikastetxeko ikasketa burua izan da eta irailaz geroztik dihardu ikastetxeko zuzendari lanetan.



Arantza Mata, Plaentxi Herri Ikastetxeko zuzendaria.

Ikastetxean lan egiteko eta harremantzeko metodologia aldatu eta eskola inklusibo garatzea du helburu Arantza Matak aurkeztutako Zuzendaritza Proposamenak. Eraldaketarako lehen urratsak eman dituzte eta aurrera egiteko erronken artean, Hezkuntza Komunitatea osatzen duten eragile eta norbanako guztiak elkarrekin Hezkuntza Proiektua bat garatzeko asmoa azpimarratu du.

Eskola inklusiboa bultzatzen duzue. Praktikara eramanda, zer da hori?

Planteamendu inklusiboak, oinarrian, ikasleen arteko ekitatea, elkartasuna eta aukera berdintasuna jasotzen ditu. Ildo

“Ikasleen oinarriko gaitasunak garatzeko metodologia bultzatzen dihardugu”

honi jarraiki, ikasleen oinarriko gaitasunak garatzeko metodologia bultzatzen dihardugu, lana proiektu bidez eginez eta egungo dinamiketan ikaskuntza kooperatiboko egiturak garatuz; familien parte hartzea sustatuz; ikasleen aniztasunari arreta emanez eta herriko beste hezkuntza eragileekin harremanak sendotuz; inklusibitatea eskolatik haratago doan filosofia da.

Zein helburu du lanketa honek?

Hezkuntza Komunitate osoaren eta bereziki klastroaren laguntzaz eta elkarlanean, datozen lau urteetan zentroaren filosofia definitzen ahaleginduko gara.

“Datozen lau urteetan zentroaren filosofia definitzen ahaleginduko gara”

Herri mailan egituratzen diharduzuen Hezkuntza Komunitateak zein egitasmo ditu eskuartean?

Gizarteak hezkuntza oinarriko zerbitzu gisa ikusten du eta hezkuntza, ikastetxearena ez ezik, komunitate osoaren eginkizuna da. Halaber, ez da erraza planifikatutako estrategia bat gabe denok norabide berdinean aurrera egitea, beraz, eraldaketa bat emateko jarduerak sortu behar ditugu eta ipar horretan gaude lanean; Komunitatearen hezkuntza proiektu bat sortzen; ikastetxe mailan egiten diren proiektuetan guraso eta beste eragileen parte hartzea sustatzen...

Hezkuntza Komunitateak Euskal Aratosteak antolatu zituen iaz lehenengo. Emaizarekin gustura?

Lehen Hezkuntza osoak Euskal Aratosten inguruko proiektua garatu zuen

eta proiektuaren bidez ikasleei jakintza edukiak helarazi zitzaizkien eta gaitasunak garatu zituzten. Kalejira bitartez hezkuntza plazara ateratzea lortu genuen, eta lanketa herri mailakoa izatea lortu zen, eragile ezberdinek bat egitea. Arrakastaz beteriko proiektu zoragarria izan zela iruditzen zait.

Ikasturte honetan Hezkuntza Plazara! Eguna antolatuko duzue ezta?

“LOMCEren aurrean, zergatik ez Euskal Eskola Publiko intsumisioa sustatu?”

Udaleko Hezkuntza Batzordeak bultzatzen duen ekimena da eta argi dugu hezkuntza herrira zabaldu behar dela, herri mailako ospakizuna izango da.

Ikastetxeari nola edo zertan eragingo dio LOMCE legeak?

Gure proposamena hankaz gora jartzen du eta curriculumari min handia egin diezaiokie. Ezin dugu onartu ikasleak sailkatzea, premia bereziko ikasleek tokirik ez izatea, emaitzen arabera ikastetxeak mailakatzea, onenei soilik baliabidez hornitzea... Orain da momentua indarrak bateratzeko eta zergatik ez, Euskal Eskola Publiko intsumisioa sustatu?



DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 1803 Industrialdea 20 - 21
F. 943 75 22 95 50 Posta Kutxatila
20590 Soraluze



TALLER MEKANIKOA

- Mekanizatutako piezak
- Erremintak
- etab.

Tel. 943 75 21 42 • Fax 943 75 24 12
Mendiola industrialdea 14- 4. Nabea; 161 P.K.
marian@albisua.e.telefonica.net
20590 SORALUZE

Auzokonposta gunea Etxaburuetan

Udalak herrian lehen auzokonposta esperientzia bideratzeko konpostagailua jarri du Etxaburueta kalean, Gabolatseko igogailuaren sarrera ondoan. Herriko hogeitasei familien hondakin organikoak konpostatzea da asmoa, herriko zabor tasa jaitsi, berziklapena sustatu eta konposta herrian bertan erabiltzeko helburuarekin.



Etxaburuetako konpostagailu komunitarioa.

Proiektua garatzeko 6.067 euroko inbertsioa egin du eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu du, 2700 euro jarrita. Arduradunek jakinarazi dute esperientzia pilotoa dela eta Gabonen ostean hasiko direla sentsibilizazio kanpainarekin. Hasiera batean 20 familiei zuzendutako egitasmoa bada ere, herritarrek izena eman eta taldetxoak osatu ahala jarriko ditu martxan konpostagailu komunitario gehiago. Informazio gehiago nahi duenak udalera deitu dezake (943 75 30 43).

Edukiontzi marroien balorazioa

Datorren martxoan beteko da urtebete herrian materia organikoa jasotzeko edukiontzi marroiak ezarri zirela. Herritarren erantzun ona goraiatu bada ere, oraindik ez da egin publiko sistema horrek eman duen emaitzaren inguruko informaziorik. Alderdiek urtebeteko epea zehaztu zuten sistemaren inguruko balorazioa egiteko.

Kontsumo taldean izena emateko aukera

Bidetxior kontsumo taldeak kide berriak egiteko aukera zabaldu du abenduan. Herrian ekoiztutako kalitatezko produktuak kontsumituz herriko ekoizleak lagundu eta horrekin batera, kontsumo ohitura osasuntsu eta jasangarrien inguruko praktika onak ere bultzatu nahi dituzte. Kide egiteko interesa izanez gero, astelehenero 19:00etan Zubi Nagusian egiten den banaketara hurbildu edo 605 70 60 86 telefonora deitu daiteke.



Euskal mitologian murgiltzeko txangoa 31n

Kukumixo Aisialdi Taldeak, udalak eta Debanatura Elkarteak 6-12 urte bitarteko umeei eskainitako Arbasoen deia irteera antolatu dute abenduaren 31rako. Lau orduz, ipuin eta jolasen bitartez euskal mitologian murgilduko dira, eta arbasoek nola ehizatzen zuten ikasteaz ez ezik, artzain lana nola egiten zen edota sua nola pizten zuten ere ikasiko dute. Irteera doakoa da eta 25 lagunei mugatua. Izen-ematea abenduaren 23a baino lehen egin behar da, udaletxean.



Gaueko lapurretek kezka piztu dute



Eguaztenean Gabolatseko Estankotan eta orain bi aste Mendata Tabernan gertatutako lapurretek kezka piztu dute herritarren artean. Lapurretak gauetz gertatu izanak gauetako segurtasun neurrien eraginkortasunaren gaineko eztabaida ere eragin dute.



Bizikalek 6000 euro zozketatuko ditu

Bizikalek 6000 euro zozketatuko ditu abenduaren 31n, irabazleak 2014. urtean zehar Bizikaleko komertzioetan gastatu dituzan. Errifak, elkarteak osatzen duten denda eta tabernetan daude salagai 2,5 eurotan. Errifekin, elkarteak berak Gabonetarako antolatu dituen zaldiko-maldikoan eta ohe elastikoetan ibiltzeko tiketak banatuko dituzte.

Itxaropenan hogeita hamar otar zozketatuko dituzte

Hilaren 28rako zehaztu du Itxaropenak urteko azken ospakizuna. 16:30ean luncharekin egingo diete harrera jubilatuz bazkideei eta jarraian, ospatzen ari diren karta txapelketako lehen eta bigarren klasifikatuei trofeoak banatuko dizkiete. Festa borobiltzeko, 30 otar zozketatuko dituzte.

Pentsiodunentzat 50 euroko bonolaguntzak

Abenduaren 1az geroztik pentsiodunentzat herriko dendetan kontsumitzeko 50 euroko bonolaguntzak banatzen dihardute udalak eta Bizikale Merkatarik Elkartek, elkarlanean. Bona eskatzeko Soraluze bizi direla eta diru-sarrera minimoak dituztela egiaztatuz beharko dute eta eskaria, udaleko Gizarte Zerbitzuetan egin behar da abenduaren 30a baino lehen.

Artisauek azoka berezia antolatu dute domekarako

Gabonetako azoka berezia egingo dute aurten lehenengoz herriko artisauek domeka honetan, hilak 22, eguerdiko 12:00etatik 14:30era eta 18:00etatik 21:00ra bitartean, Kontzejupean. Zehazki, zortzi artisauren lanak jarriko ditute salgai, eta besteak beste, fofutxako panpinak, umeendako osagarriak, ohialak, bitxiak, poltsoak edota narruzko osagarriak erosteko aukera eskainiko dute.

Datorren urteko aurrekontuak %26ko igoera

Udal gobernua aldeko botuekin opzizio bi alderdien abstentzioarekin onartu zen egueneko udalbatzarrean datorren urteko aurrekontua. 4.778.360 eurokoa izango da aurrekontua, joan zen urtekoa baino %26,50 handiagoa. Inbertsionarako bideratutako atalak izango du hazkunderik handiena eta 1.104.000 proiektu berriak garatzera bideratuko dira. Batez ere azken hiru urteetan kudeaketan egindako ahaleginari esker zorra ia erdira (%46) murriztu izanak datorren urtean udalak inbertsionarako dirua izatea ahalbideratuko duela adierazi zuen alkateak.

Udalak datorren urtean garatu asmo dituen proiektu nagusien berri ere eman zuen: kaleko argiteria egokitzea (605.000 €), Santa Ana, Kalebarren, Zubia pabimentazioa (268.000 €), kiroldegi gaina egokitzea (170.000 €), hirigintza plan orokorra (72.000 €), Alkarrekin Soraluze Eginez (40.000 €), umeen parkea Errekalden (30.000 €), rokodromoa (27.500 €), komunikazioa (15.000 €), Itxaropenako sarbidea (11.829 €), 2. sektorearen garapen ekonomikoa (10.000 €) eta bidegorrian ariketa fisikoak egiteko helduendako bideratutako azpiegitura (1.000 €).

Arloz arloko diru partidetan izango direla ere aipatu zuen, eta bereziki azpimarratu zituen zailtasun ekonomikoak dituzten herriko elkartei bideratuko zaizkien igoerak: Musika Eskola eta Soraluze Futbol Taldea besteak beste. Alkarrekin prozesuan zehaztutako ildoak garatzeak izango duen garrantzia ere nabarmendu zuen.



Udalbatzarreko bozketa.

Oposizioaren abstentzioa

EAJk bere poza adierazi zuen beste behin aurrekontuak onartu direlako. Aldazabalen esanetan "erantzunkizunez jokatzeari" izan da abstentzioa emateko arrazoi nagusia. EAJk proposamenak aurkeztu izana, Eusko Legebiltzarrean Bilduk osoko emendakina aurkeztu izanarekin alderatu zuen, ezker abertzaleak "ezetza ezetzarengatik" ematearen jokoarekin jarraitzen duela salatuz. Egitasmoei dagokionez, ezadostasun bakarra aholkulariari bideratutako partidarekin dutela gogorazi zuen. PSE-EEK azaroan udal-tasen ordenantzan lortutako adostasuna aipatu zuen abstentziorako arrazoi nagusi moduan.

Alkateak bere aldetik, poza adierazizuen aurrekontuak onartu izanagatik. PSE-EEK adostasunetara heltzeko erakutsi duen jarrera eskertu zuen, eta EAJri berriaz, eztabaida medioen bitartez bideratu izana ez dela onargarria aurpegiaratu zion. Aurrekontu egitasmoaren integritasuna eta herritarrendako ekarriko duen onura goraiatu zuen.



**GIZA ESKUBIDEAK - IRTENBIDEA - BAKEA
EUSKAL PRESO TA IHESLARIXAK ETXERA!**

Abenduak 24 (asteartea) - 11:00tik aurrera Zubixan
Neguko material salmenta, 2014ko egutegixak...

Abenduak 26 (osteguna) - 17:00tan Plaza Berrixan
U11 Bilboko mobilizazioko propagandarako lan banaketa

Abenduak 27 (ostirala) - 20:00tan Plaza Zaharrian
Azken Barixaku elkarretaratzea

Abenduak 28 (larunbata) - 19:30tan Kontzejupian
Itsasoa egin deigun, izan zaitxez tanta!
Tantaz tanta ekimena: bideoak, ekarpenak egiteko aukera...

Abenduak 31 (asteartea)

20:00tan Zubixan

Kontzentrazioa + Olatu erraldoia



U11 Bilborako autobus tiketak salgai: Gaztelupe, Arrano, Gaztetxe ta Bolian




Ixa Rodriguez Saez

Argazkiak: Fernan Oregi

Konbatea kolpez kolpe

Badira bi urte Ixak (Soraluze, 1982) boxeatzeari ekin ziola. Zapatuan Santanderren jokatu zuen konbatea hamargarrena izan du eta garaipena zortzigarrena. Pil-pileanek argazkitan jaso du.



18:00 PISAKETA

Entrenatzailea eta aurkaria aldamenean dituela igo da pisura. 52 kilo, epaileak balekotzat jo du. 54 kilotan zuen muga.

18:05 ARGAZKIA

Prentsarako argazkia, Pil-pilean taldeko Ixa Rodriguez Santan... Giro ona nabari da kirolari bie

17:30 PRESTAKETA

Konbatearen aurreko prestaketak. Gogotsu dago. Barru barrutik bizi du boxeoa. Jaialdiak zazpi konbate izango ditu. Boxeatzaile denak bueltaka dabilta aldageletan eta dozenatik gora plaentxiar kanpoan.

19:35 KONBATEA

Hasi da konbatea. Adituen esanetan, azkartasuna da Ixak boxerako duen bertute nagusia. Dominatzen hasi da baina amaierarako nekatu egin da.



19:30 RIN-ERA

Aurkezleak bere izena ohiukatu du modu apasionatuan eta boxeo filmetako musika tipikoa jarri dute. Ixa abiadan sartu da rin-era, bizi-bizi eta irripartsu.



AHIZPA

Ahizpa da bere zalerik sutsuenetakoa, koinatuarekin batera. Aita ere ez dabil urrun. Arretaz jarraitzen dute konbatea, gainerako plaentxiarrek bezala.

mendako. Bilboko Lopabox
dergo Lidia Señaren aurka.
n artean.



19:52 EPAIA

Aurkezleak Ixaren izena ohiukatu du eta besoa altxatu dio. Berea da garaipena. Aurkaria eta beronen entrenatzailea besarkatu ditu eta bere entrenatzailearengana joan da. Iklusleen txalo artean atera da aretotik.



19:50 AMAITU DA

Amaitu da konbatea. Hiru minutuko hiru asaltora jokatu dute, eta leher eginda dago. Epailen esku dago orain azken erabakia.



**2013
urtekaria**



URTARRILA

Urak Iruren behera

Urtarrilean izandako euri-jasak arazoak sortu zituen berriz ere Irureko Iraola-Etxebarri baserriaren lurretan.

OTSAILA

Mbaye Ndaye senegaldarraren heriotza

Manbayeren heriotzak elkartasun olatua piztu zuen herrian eta familiarari bidaltzeko 14.000 euro batu ziren herrian.



MAIATZA

Greba orokorrak jarraipen handia

Jarraipen handia izan zuen herrian Espainiako Gobernuak ezarritako lan-erreformaren aurka euskal gehiengo sindikalak deitutako egun osoko grebak.

EKAINA

Alkarrekin prozesuaren hasiera

Udalak datozen urteotan garatuko duen plan estrategikoa osatzen jardun dute herritarrek maiatzean hasi eta azarora bitarte luzatu den prozesuan. Parte hartze handia izan da.



IRAILA

Herria euskalzaleen topagune

Euskararen herrialde osotik etorritako ehundaka euskalzale batu ziren herrian. Gogoratzeko moduko jai eguna izan zen.

URRIA

Herriraren aldeko mobilizazioak

Guardia Zibilak presoan alde ziharduen Herrira mugimenduaren aurka egindako ooperazioa salatzeke hainbat ekimen burutu ziren herrian.



MARTXOA

Eman euskara elkarri!

Lelo hori aldarri hartuta zeharkatu zuen 18. Korrikak euskararen herria. Aspaldiko jendetzarik handiena batu zitzaion herrian pasatu zenean.



APIRILA

Elkargunea: jantoki eta elkartzeko gunea

Bizimodu duinaren aldeko batzarrak bultzatuta, Elkargunea izeneko ekimena jarri zuten martxan. Bi-hiru hilabeteetan zehar jana eta elkartzasuna batu ziren mahaiaren bueltan.



UZTAILA

Eloi Uriarte mintzakidetza taldean

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboaren mintzakidetza taldea aurkeztu dute eta Eloi Uriarte soraluzetarra kideetako bat. Pausoak eman eta emarazi nahi dituzte.



UZTAILA

Santiago-Santa Ana Jaiak

Herritarren artean antzeztutako Piacenza (Italia) eta Placencia (Soraluze) herrien arteko senidetzea izan zen jaietako ekimen arrakastatsuenetakoa.



AZAROA

Merkatarien elkarte biziberrituta

Bizikale merkatarien elkarteak plan estrategikoa osatu eta kide kopurua bikoiztu zuen. Azaroan antolatutako azoka-egunak arrakasta handia lortu zuen.



ABENDUA

Lapurretengatiko kezka herrian

Herriko hainbat komertziotan eta bestela egindako lapurretek kezka piztu dute herritarren artean.

Azken egunotan lapurretak bihurtu dira berbetagai nagusienetakoa herrian. Herritarrei galdetu diegu ea zela bizi duten lapurretak gehitu diren momentu hau.

Zela bizi duzu lapurreten kontua?



Ainhoa Zubizarreta

Ni haserretu egiten naiz kulpa kanpoko jendeari botatzen zaionean. Arduratzen nau gaiak baina ez naiz beldurrez bizi. Nik ez dizkiot zerrailari bi buelta ematen lapurren beldurrez. Neurri sozialak behar dira polizia baino gehiago.



Borja Olaizola

Inpotentzia sentitzen dut. Ematen du zaintzen egon behar luketenak ez daudela behar luketen lekuan. Garrantzitsua iruditzen zait errugabetasun presuntzioa errespetatzea. Egia da denok hartu dugula noizbait gu-rea ez den zerbaite.



Felipe Romero

Segurtasun-falta sentitzen da. Kontua ez da errua kanpotarrei botatzea. Badago jendea baztertuta bizi dena eta horri konponbidea eman behar zaio. Denok harrapatu dugu zerbaite gaztetan baina lotsagatik bada ere, laga diogu.



Feli Oregi

Neri erreparo pixkat ematen dit. Krisi egoerak eragin zuzena du egoera horretan. Segurtasun gehiago eskatzen dugu baina pena da, herri honetan oso lasai bizi izan gara eta. Egia da bakoitzak bere mailan denok egin dugula lapurretatxoren bat.

Javier Alberdi



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434



HORTZ KLINIKA

Errebal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERCATU PLAZA

ESKERRAK ASKO PLAZENTZIATARRAI
GUGAN IZANDAKO KONFIANTZEGATIKI



Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Disenua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

laibi
ELECTRICIDAD



Mendiola industrialdea, 13
20590 SORALUZE (Gipuzkoa)
Tel. 943 75 12 89 • 616 168 227
Fax. 943 75 23 41
gabilondo@laibi.net • www.laibi.com

MARE
ILEAPAINDEGIA



ESTETIKA
SOLARIUM

Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Agenda

PELOTA

Gaur, 17:00etan Aranen
Eskolako ikasleen arteko txapelketa

Gaur, 20:30ean Aranen
Infantil mailako Gipuzkoako
Txapelketako finalerdiak

Julen Gallastegi – Etxaniz (Bergara)

FUTBOLA

Zapatua 21, 16:30ean Arrasaten
Mondragon – Sora (Erreg. Pref.)

Zapatua 21, 17:30ean Unben
Armagiñak J.T.K – Sora (Erreg.)

Zapatua 21, 14:15ean Ezozin
Sora (Jub.) – Urki

Domeka 22, 16:00etan Ezozin
Sora (Kad. mut.) – Elgoibar

Domeka 22, 16:00etan Unben
Urki – Sora (Inf.)

KORRIKA

SAN SILVESTRE
Abenduaren 31n,
13:00etan Kontzejupetik

PATINAIA IKASTAROA

Abenduaren 23, 26, 27, 30ean
Urtarrilaren 2 eta 3an
Lehen Hezkuntzako haur eta
gurasoei zuzenduta.
Izen ematea Aranen, 10 euro ordainduta.

MENDIA

Mendi taldean federatzeko epea zabalik
dago. Ordainketak Kutxan egin behar
dira, kontzeptuan izen-abizenak idatziz.
Ziurtagiria, mendi taldean aurkeztu
behar da, eguenetan, 19:30etik 20:30era.
Bestelade, Mendi Taldearen bazkidetza
kuota 10 eurokoa dela gogoratu nahi
dute arduradunek.

Kontu korrontiak:
10 euroko bazkidetza:
2095 5062 97 1068477941
Federatzeko kontu zenbakia:
2095 5062 97 1069120078

Laskurain eta Elizburu Mendaroko giza probetan

Linek Laskurainek eta Lierni Elizburuk abenduaren 7an Mendaron ospatutako Kontzezio azokako giza probetan hartu zuten parte, Mendaroko taldea ordezkatzeko. Manu Maritxalar eta '101 Gaztelu' programako lehiakidea izan den Imanol Gonzalezen laguntza izan zuten froga burutzeko eta 15 minutuko saioan, 31 ulti za egitea lortu zuten.



Iturria: Leire Elizburu.

IV. Binakako Frontenis Txapelketako izen-ematea zabalik

Abenduaren 28an 16 urtetik gorakoekin binakako IV. Frontenis Txapelketa jokatu da, kiroldegian. Soraluzeko bikoteek 10 euro ordaindu beharko dituzte, gainontzekoek 15 ondorengo kontu korrontean: 3025 0004 93 0040900023. Izen-ematea abenduaren 23a baino lehen egin behar da, kiroldegira deituta 943 75 24 66 edota kirola@soraluze.net helbidera mezu bat idatzita. "Artengo horia" pilota mota erabiliko dela eta bikote baikotzak ordezkari jokalaritza izan dezakeela jakinarazi dute antolatzaileek.



San Silvestre krosa hilaren 31n eguerdian

Lagunartean kirola eginez urte zaharra lagurtzea du helburu hilaren 31n egingo den San Silvestre krosak. Parte hartzaileak eguerdikoko 13:00etan Kontzejupean batu eta Plaza Zaharra, Gabolats, Ezoz Bidea, trenbidea, Olea, Txurrukeneko biribilgunea eta Zubi Nagusia igarota, Ga-

bolatseruntz egingo dute berriro, handik Baltegiatetik jarraitu eta kiroldegia igaro ondoren, lasterketa Zubi Nagusia bukatzeko. Aurtengoan ere herritar guztiei zabaldu nahi diete korrika egiteko deialdia eta arduradunek lasterketa bukaeran luncha izango dela jakinarazi dute.

ARMENDIA
JATETKEA

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11

Hamabostaldian defentsa tailerra, argazki ikastaroa eta beste

Gaztetxeko Hamabostaldia abendua-
ren 23an hasiko da, "Angiolillo" libu-



Hamabostaldian argazki zaharren erakusketa egingo dute.

ru aurkezpenarekin. Filmen atalean "Un crimen en el paraíso", "SUA" eta "El jardinerio fiel" lanak proiektatuko dituzte eta mahainguruetan osasuna, meditazioa eta kultur kontsumo gaiak izango dituzte hizpide. Defentsa pertsonala ikasteko tailerra egingo da, baita argazki eta errebelazio ikastaroa ere. Dantza ikastaroan Kontakt eta breakdance modalitateak landuko dituzte eta musikaren tartea Priki eta Peska eta Hankahutsik taldeek beteko dute. Otorduetz gozatzeko Tripafesta afari begetarianoa, bertso merienda eta gaztetxeko bazkari parte hartzailea antolatu dituzte. Kukumixorekin elkarlanean umeei eskainitako tarreak itxiko du egitaraua urtarrilaren 5ean. Informazio gehiago: P.com

Mitxel Aizpurua zumaiarrak irabazi du Kontrargiren Argazki Rallya



Rallyko irabazleak.

Guztira 36 parte hartzaile izan ziren azaroren 17an Kontrargi Argazki Kolektiboak antolatutako XXV. Argazki Rallyan. Eibarko Klub Deportiboko Argazki Taldeak Mitxel Aizpurua argazkilaria lehen saria ematea erabaki du. Bigarrena Mikel Valero soraluzetarrarentzat izan da eta hirugarrena Oskar Bailerentzat. Herriko argazkilaria onena Carlos de Cos izendatu dute eta gazteen mailan, onena, Urko Ruiz izan da.

Bihar, abenduak 21
ABESBATZAREN GABONETAKO
KONTZERTUA
20:00etan, Antzokian.
Ant: Ezoziko Ama Abesbatza

Abenduak 22, domeka
HAUR ZINEMA
"Despereaux-en kondaira"
17:00etan, Antzokian.
Ant: Atxolin Guraso Elkartea

Abenduak 24, martitzena
OLENTZERO ETA MARI DOMINGI
Goizeko 11etatik aurrera

Abenduak 27, barixakua
MARSEL MAGOA
18:00etan, Antzokian.
Ant: Udaleko Kultura Saila

Urtarrilak 2, eguena
PAILAZOAK "Hipo eta Tomax"
18:00etan, Antzokian
Ant: Udaleko Kultura Saila

Urtarrilak 4, zapatua
HAUR PARKEA
Goizeko 11:30etik aurrera,
kiroldegian
Ant: Atxolin Guraso Elkartea

Urtarrilak 5, domeka
ERREGE KABALGATA
19:00etan
Ant: Soraluzeko Parrokia Taldea

Urtarrilak 18 eta 25
HAUR MASAJE TAILERRA
lone Oregiren eskutik
11:30etik 12:30era
Ant: Udaleko Hezkuntza Batzordea

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91
Baltegieta 6
T. 943 75 13 99
SORALUZE

Zorion agurrak



Igor Garmendia Ondarra
Abenduan 16xan 41 urte
Zorionak aitabxo etxeko danen partez!



Leire Carretero
Urtarrilan 9xan 10 urte!!
Zorionak neska haundi!!!
Muxu haundi bat etxekuen eta lrearen partez!



Ilargi Alberdi eta Iosune Casares
Abenduan 17xan eta 24an, 7 eta 40 urte!
Zorionak bikote, muxu goxo bat etxekuen partez, bereziki Ametsen aldetik. Oso ondo pasa zuen eguna!



Malen, Joanes eta Aitor Ugalde
Abenduan 18xan eta 19xan, 5 eta 2 urte!
Zuek zarie gure bizipoza, maite zaituztegu!!
Txokolatezko patxuak, etxekuen partez.



Ianire eta Alba
Abenduan 16xan 15 urte!!
Zorionak loro pareta eta muxu haundi bana lzarren partez

Jaiotakoak eta hildakoak



Alenjandro Urrestarazu Aristi
Luisa Esnaola Zubizarreta

Lehiaketa

Zein da?



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da.

Aurreko aleko erantzuna

Agustin Jauntsaratz, Krabelin Pintura Eskolako lehendakaria.

Irabazlea



M^a Karmen Olaizola

Saria:

Biribiltxoren argazkiekin osatutako Urakapiñak liburuxka.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.



Iturria: Urakapiñak. Angel Bolunburu Birititxo.

Gabonetako eskea kantuan

Mesedeetako eskolako ikasleei 1950. urteko Gabonetan ateratako argazkia da. Eskola ondoan, gaur egun Atxuriko parkea dagoen lekuan jaiotza irudikatzen zuten eta ikasleek

jai giroan eta Gabon garaiko kantuen interpretatuz irtetzen zuten kantuan abenduaren 24an.

Argazkian, ezkerretik eskumara:

Atzean: Katarine Iñurrieta eta Margarita Albeniz.

Hirugarren lerroan: Arantza Gabilondo, Maria Felisa Alberdi, Carmen Orueta, Carmen Arana, Maria Luisa Arizaga.

Bigarren lerroan: Ezozi Basauri, Eneida Iraeta, Maria Belen Amutxastegi eta Amaia Iraeta.

Aurrean: Rosario Zabaleta, Irene Alberdi eta Ana Mari Ota.



**MARI TERE
ARISTI LARRAÑAGA**

X. URTEURRENA,
ABENDUAREN 23AN



**ISIDRO
SOBA CARRANZA**

V. URTEURRENA,
ABENDUAREN 5AN

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte baizik.
Gure bihotzetan beti
maite izango zaituztegu.*

Etxekoak

Elizpe
Hortz klinika

Gure zerbitzuak:
- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOHAINEKO BERRIKUGKETAK
FIRAZI ZAKETA ZURE NELURRIA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Tel. 943 75 25 67
Elizburu 3 behea, Soraluze

TALLERES
M. A. H., S. L.



DEKOLETAJEKO PIEZEN
FABRIKAZIOA

Tel. 943 75 30 22 • FAX-a. 943 75 30 88
Mendiola ind. 14, 4. pab.
Soraluze (Gipuzkoa)

PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Torlojugintza



Errekalde, 21 Tel. 943 75 00 06

SAN ANDRES
ITURGINTZA



Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



SOMABE

- ↪ Makina bereziak
- ↪ Linea automatikoak
- ↪ Estankotasunaren kontrola

Soraluze Makina Bereziak S.L.L.
Mendiola Industrialdea, 14-5 • 20590 SORALUZE (Gipuzkoa) • Tel. 943 75 18 91 / Fax 943 75 24 58 • www.somabe.com



OSUMA
basolanak

Sutarako egurra etxera

Osuma-gain baserria
S. Andres auzoa
Tel. 943 58 40 41
Mug. 630 143 767

MGS
Seguros



Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 • 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es
www.mgs.es

Zozketako irabazlea: Iñaki Gabilondo.
Saria: Smarbox esperientzia.

Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!



Kalebarren 22. behea,
Soraluze, Tel. 943 75 17 89

BOLINTXO
OKINDEGIA



943 75 25 43
SANTA ANA KALEX 4
SORALUZE

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Telefonoa: 943 75 17 82 Faxoa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA



Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea

1910etik

943 75 13 45



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madrilen.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea, Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomatu Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hortz-Estetikian Diplomatu. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hortz-Estetikian Diplomatu. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkartea
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

FINANTZIAZIO BEREZIA


Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

clínica dental Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

TOKIKOM

Pil-pil

Soraluzeko hilabetekaria • 20



IXA RODRIGUEZ
Boxeorako grina
kolpez kolpe